

ERAKUNDEEN ARTEKO HITZARMENAREN
JARRAIPENARI ETA EBALUAZIOARI BURUZKO
TXOSTENA (2007)

Erakundeen Arteko Hitzarmenaren Jarraipen batzordea

Etxean tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza hobea emateko erakundeen arteko hitzarmeneko bosgarren estipulazioko e) atalean ekitaldi bakoitzaren amaieran erakunde sinatzaileek Hitzarmeneko edukiak betetzeari buruzko jarraipen eta ebaluazio txostena egin beharko dutela zehazten da. Aipaturiko Hitzarmena 2001eko urriaren 18an onartu zen.

Honako agiri hau Akordioko erakundek emandako informazioan oinarrituta prestatu du Emakumearen Euskal Erakundeak (Emakunde), erakunde sinatzaileetako bakoitzak eginiko jarraipen eta ebaluazio txosten partzialetan jasotako informazioa testu bakarrean eta era ordenatuan jasotzeko¹ eta, horrela, Akordioan ezarritako konpromisoak eta jarraibideak, oro har, zer mailatan bete diren ikusi ahal izateko.

Hitzarmenean bertan ezarritako irizpideari jarraiki, agiri hau bi zatitan dago banatuta. Lehenengoan, Akordioko Jarduera Protokoloko neurriak eta jarraibideak eraginkortasunez aplikatuko zirela bermatzeko erakunde sinatzaileek 2007an egindako jarduerak adierazi dira. Aurreikuspenak zer mailatan bete diren jakiteko, komenigarria da Jarraipen batzordeak 2007ko maiatzaren 23an onartutako Erakundeen Arteko Akordioa ezartzeko neurriei buruzko agiria (2007) kontuan izatea, bertan aipatzen direlako erakunde sinatzaile bakoitzak abian jarri beharreko neurriak.

Txostenaren bigarren zatian, erakundek txosten partzialetan egindako balorazioa ageri da, literalki jaso; haien jarduera eremuetan Protokolokoak izandako betetze mailari buruzko balorazioa, hain zuzen ere.

Gasteiz, 2008ko maiatzaren 28a

¹ Ez da Fiskaltzaren inguruko informaziorik ageri, ez duelako Jarraipen batzordearen Idazkaritzara bidali.

A) EGINDAKO EKINTZAK

EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

Gobernuak emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan abian jarritako sentsibilizazio jardueretan parte hartu du.

Herritarren artean emakumearen aurkako indarkeriarekin lotutako arazoak ezagutarazi ditu, baita Euskal Autonomia Erkidegoko gaur egungo egoera eta bilakaera ere. Horretarako, informazio estatistikoa hedatu du Herrizaingo Sailaren prentsa zerbitzuaren bitartez.

Etxeko tratu txarrek eta sexu erasoek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunei buruzko Protokoloa ezartzen parte hartu du.

Datawarehouse estatistikoa ezartzen aritu da; hari esker, gaur egun eskuragarri ez diren delituen egileei buruzko datuak integratu ahal izango dira, besteak beste.

Ertzaintzak ezagutzen dituen etxeko indarkeriarekin eta sexu askatasunaren aurkako delituekin lotutako arau-hauste penalen biktimen estatistikak aldiro Emakunderi bidaltzen jarraitu du, eta aurreko ekitaldiarekin alderatzeko datuak ere eman ditu.

Ertzaintzaren datu-baseak aldatu ditu, etorkizunean krimenak geografian banatzeko aukera emango duen adierazpen bat egiteko. Horrek erasoen eta prebentzioen mapa zehatzagoak egiteko modua emango du.

Emakumearen aurkako indarkeriarekin lotutako arazoen ezagutza handiagoa sustatu du ertzainen artean. Horretarako, gai honi buruzko artikuluak argitaratu ditu *Ertzaintza Gaur* argitalpen korporatiboan («Europar emakume poliziaren alde lanean», «900 tratu txar egile atxilotu ditu Ertzaintzak 2006an», «Berdintasuna polizian» eta «Berdintasunaren aldeko Naro Foroarekiko poliziaren konpromisoa»).

Ertzaintza trebatzeko programan emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, indarkeria garaiz antzemateko eta horri aurre egiteko prestakuntza ikastaroa egiten jarraitu du.

Beharra duten etxeko indarkeriaren edo/eta genero indarkeriaren biktimentzat etengabeko zainketa programa ematen jarraitu du.

Etxeko indarkeriaren edo/eta genero indarkeriaren kasuistikari buruzko Fiskaltza Bereziarekin lanean jarraitu du.

Etxeko indarkeriarekin eta genero indarkeriarekin lotutako Ertzaintzaren jardueretan Kalitatea Kudeatzeko Sistema ezartzen ari denez, Ertzaintzaren bulegoetan tratu txar kasu baten berri badute, autobabeserako neurriei buruzko informazioa jasotzeko aukera eskaintzen diote tratu txarrak jasandako emakumeari; informazio liburuxka bat eta ikus-entzunezko materiala erabiltzen dituzte horretarako. Era berean, ustezko erasotzaile bezala tratu txar salaketa batean nahastuta dabilen gizonari informazioa ematen diote, jokaera horrekin jarraitzeak ekar diezazkiokeen ondorio penalez eta portaera aldatzeko eskura dituen zerbitzu sozialez.

Etxeko indarkeriaren edo/eta genero indarkeriaren aurkako tokian tokiko protokoloak lantzen lagundu du, betiere poliziaren esku-hartzeari dagokionez.

Indarkeria mota honetaz herritarrek sentsibilizatzeko administrazioak eta tokian tokiko eragileek antolatutako jardunaldietan antolatzaile edo hizlari moduan parte hartu du.

Etxeko indarkeriaren edo/eta genero indarkeriaren biktimen arrisku egoera baloratzeko tresna abian jarri du. Horrela, hainbat arrisku maila eta kasu bakoitzari dagozkion babes neurri polizialak ezarri ahal izango dira.

Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen batzordearen eta Talde Teknikoaren koordinazio bileretan parte hartu du. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak, 2007an, Erakundeen Arteko II. Akordioaren eta tratu txarren biktimak laguntzeko programa arautzeko Dekretuaren zirriborroei –Emakundek egindakoak biak– ekarpenak eginez lan egin du, batez ere.

EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIEN SAILA

Etxeko tratu txarren biktimei harrera egiteko baliabideen inguruko dekretu arautzailea argitaratu du.

Zuzeneko ekintzatzat jo du etxean tratu txarrak jasaten eta behar bereziak dituzten emakumeei arreta emateko gune esperimental bat sortzea, eta hasia da horretarako beharrezkoak diren izapideak bideratzen.

Diru laguntzetan, lehentasuna eman die indarkeria jasan duten emakumeei arreta eta laguntza emateko gizarte egitasmoei.

Diru laguntzak esleitzeko orduan, lehentasuna eman die gizarte zerbitzuetako profesionalak alor honetan trebatzeko ikastaroei.

Udalei eta mankomunitateei diru laguntzak eman dizkie, etxeko indarkeriari eta sexu erasoei aurre egiteko tokian tokiko protokoloak gara ditzaten.

Kulturartekotasunari eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza eman die oinarrizko gizarte zerbitzuetako langileei.

Etxeko tratu txarrek eta sexu erasoek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa ezartzen parte hartu du.

Gizarte zerbitzuen eremuan datuak biltzeko sistema bateratua sortzeko prozesuan parte hartzen jarraitu du.

Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen batzordearen eta Talde Teknikoaren koordinazio bileretan parte hartu du. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak, 2007an, Erakundeen Arteko II. Akordioaren eta tratu txarren biktimak laguntzeko programa arautzeko Dekretuaren zirriborroei –Emakundek egindakoak biak– ekarpenak eginez lan egin du, batez ere.

Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren osoko bilkuretan eta adierazleei buruzko lantaldeetan parte hartzen jarraitu du.

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei telefono bidezko arreta eskaintzeko zerbitzuaren bitartez egiten diren erakundeen arteko koordinazio lanak sustatu eta indartu ditu.

Babes ofizialeko etxebizitzan eskatzaileen eta esleipenen kopuruei jarraipena egin die, genero indarkeriaren biktimentzako etxebizitza arloko neurri positiboari buruzko 2006ko

urriaren 4ko Aginduen ildotik.

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Genero indarkeriari eta familiaren barruko indarkeriari buruzko batzarra antolatu du, Euskal Autonomia Erkidegoan gai honetan ezartzen ari diren politika eta ekimen nagusien hedapena errazteko, baita politika horiek diseinatzen, kudeatzen eta exekutatzen dituztenen arteko eztabaida eta esperientzia trukaketa laguntzeko ere. Azken helburua erakundeek genero indarkeriari eta familiaren barruko indarkeriari emandako erantzuna hobetzea da.

Lurralde Historiko bakoitzean jarraipena egin dio genero indarkeriaren kontrako babes osoa emateko neuriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren eraginkortasuna bermatzeko Protokoloari. Protokoloa 2005ean izenpetu zuten Gobernu Aretoko ordezkari batek, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu idazkariak, probintzia auzitegiek, epaile dekanoeak, Fiskaltzak, Emakundek, Herrizaingo Sailak, udaltzaingoeak, profesionalen elkargoek, gizarte zerbitzuek, Berdintasunerako Erakundeak eta Justizia Sailak.

Justizia Administrazioaren Euskal Behatokian lantalde iraunkorra sortu du, emakumearen aurkako indarkeria kasuez arduratzen diren EAEko epaitegietako datuen bilakaera aztertzeko, ondorioak ateratzeko eta jokaerari buruzko proposamen zehatzak egiteko.

Emakumearen aurkako indarkeriaren arloan beste erakunde batzuek antolatutako prestakuntza ekintzetan parte hartu du.

Prestakuntza ikastaro espezifikoak antolatu du epaileentzat, Idazkaritza Judizialarentzat eta Fiskaltzarentzat, genero indarkeriaz eta 1/2004 Legearen ezarpen praktikoaz.

Hiru Lurralde Historikoetan Genero Indarkeriaren Aurkako Lege Integralari buruzko ikastaro bana antolatu du abokatuentzat.

Organo judizialen kudeaketa aplikaziotik Babes Aginduen Erregistro Nagusira telematikoki igorritako babes aginduen eraginkortasunaren jarraipena egin du, uneoro eguneratuta zeudela ziurtatzeko.

Genero indarkeriarekin, etxeko indarkeriarekin eta sexu erasoekin lotutako www.justizia.net webguneko edukiak eguneratu eta hobetu ditu, biktimei zein gainontzeko eragileei informazio zehatza emateko.

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako epaitegi berrien sorrera bultzatu du.

Biktimei arreta hobe emateko, gizarte zerbitzuekin koordinatzeko neurriak indartu ditu.

Etxeko tratu txarrek eta sexu erasoek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunari buruzko protokoloa ezartzen parte hartu du.

Babesteko aginduen koordinazio guneen eta biktimei arreta emateko zerbitzuen eginkizunak berriro definitu ditu.

Gainontzeko eragileekiko koordinazioa areagotu du, Genero Indarkeriaren Kontrako Babes Osoa Emateko Neurriei buruzko Legearen eraginkortasunerako koordinazio protokoloen eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eremuan.

Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen batzordearen eta Talde Teknikoaren koordinazio bileretan parte hartu du. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak, 2007an, Erakundeen Arteko II. Akordioaren eta tratu txarren biktimak laguntzeko programa arautzeko Dekretuaren zirriborroei –Emakundek egindakoak biak– ekarpenak eginez lan egin du, batez ere.

2006ko abenduaren 15ean Genero Indarkeriaren Kontrako Sentsibilizazio eta Prebentzio Plan Nazionala onartu zenetik Justizia Ministerioak eta autonomia erkidegoek osatutako batzorde teknikoetan parte hartu du, genero indarkeriaren kontrako epaitegietako eragile juridikoak hezteko ikastaroetarako irizpide komunak ezartzeko.

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen bitartez, erakundeen arteko akordioa ezagutarazten jarraitu du ikastaroetan, hitzaldietan, jardunaldietan...

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak mintegiak antolatu ditu, unibertsitate curriculumaren harira (Medikuntza Fakultatea. Lege Medikuntza ikasgaia), genero eta etxeko indarkeriaz, eta gaia ebaluagarri bihurtu da azterketetan.

Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeak erasoak eta sexu erasoak izaten direnerako jarduera protokoloa landu du. Horretarako, Osasun Sailarekin jarri da harremanetan,

protokoloa ezartzean izan litezkeen balizko arazoen inguruko informazioa jasotzeko eta haiek hobetzeko bitartekoak jartzeko.

Jarraipen batzordean, genero indarkeriaren edota sexu erasoen biktimei laguntza juridikoa emateko zerbitzua sortzeko eta ofiziozko txanda ezartzeko akordio berriaren ebaluazioa egin du. Abokatutzaren Euskal Kontseiluarekin izenpetu beharreko akordioak izan ditzakeen arazoak zuzentzea eta beharrezko hobekuntzak ezartzea da helburua.

Hutsuneak aurkitzeko eta hobetzeko, Biktimei Laguntzeko Zerbitzuen funtzionatzeko moduak ebaluatzen jarraitu du.

Biktimei Laguntzeko Zerbitzuen prestazioak zabaldu ditu, garaiz esku hartu ahal izateko.

Genero Indarkeriaren Kontrako Babes Osoa Emateko Neurriei buruzko Legearen eraginkortasunerako koordinazio protokoloen eta etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eremuan, Bikitimei Laguntzeko Zerbitzuen –bai arreta emateko zerbitzuak direlako, bai Babesteko Agindua koordinatzeko guneak direlako – eta gainerako eragileen arteko koordinazioa hobetu du.

Erakundeen arteko elkarlana sustatu du, genero indarkeria delituen ondorioz zigortutakoak tratamenduan jartzeko baliabideak ezartzeko.

Emakumearen kontrako indarkeriari buruzko Bilboko epaitegien barnealdea berritu du, biktima eta erasotzailea fisikoki elkarrekin egon ez daitezen. .

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

Tratu txarren kontrako osasun protokoloa hedatzeko eta sistematikoki ezartzeko Kontratu Programetan lehentasunezko eskaintza bidez eginiko ebaluazioekin jarraitu du.

Informazioa biltzeko sistema egokitzeko prozesua burutu du, Osakidetza ospitaleetako larrialdi zerbitzuetako kalitatezko datu zehatzak izateko.

Etxeko tratu txarren kasuetarako Osasun Protokoloa berraztertu eta egokitu du.

Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin aldiari behingo bilerak egin ditu, EAEko Osasun Protokoloa ezartzean izan daitezkeen balizko arazoak antzemateko eta horiek zuzentzeko neurriak hartzeko.

Tratu txarrak lehenbailehen antzemateko eta osasun arloan nola jokatu jakiteko, heziketa moduluak diseinatu ditu medikuntzako eta erizaintzako profesionalentzat (ikastaroak, tailerrak, saio klinikoak).

Akordioaren Jarraipen batzordearen eta Erakundeen Arteko Talde Teknikoaren koordinazio bileretan parte hartu du. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak, 2007an, Erakundeen Arteko II. Akordioaren eta tratu txarren biktimak laguntzeko programa arautzeko Dekretuaren zirriborroei –Emakundek egindakoak biak– ekarpenak eginez lan egin du, batez ere.

Erakundeen Arteko Talde Teknikoak adostutako eta Erakundeen Arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak onartutako materiala osasun langileen eta, hala zegoakionean, gaixoen artean banatu du.

Erakunde guztientzako neurri komunak hartzen eta ezartzen parte hartu du.

EMAKUNDE, EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Jarraipen batzordearen eta Erakundeen arteko Talde Teknikoaren lana bultzatu eta koordinatu du. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak, 2007an, Erakundeen Arteko II. Akordioaren eta tratu txarren biktimak laguntzeko programa arautzeko Dekretuaren zirriborroei –Emakundek egindakoak biak– ekarpenak eginez lan egin du, batez ere.

Emakumeen aurkako indarkeria txostena eguneratu du. Besteak beste, Erakundeen Arteko Hitzarmenaren ildotik egindako jarduerak eta Jarraipen Batzordearen zein Erakundeen Arteko Talde Teknikoaren lana daude bertan.

Aldiro-aldiri, Emakunderen webguneko *Emakumeen aurkako indarkeria* atala eguneratu eta osatu du, Erakundeen Arteko Hitzarmenaren ildotik egindako jardueren eta Jarraipen Batzordearen zein Erakundeen Arteko Talde Teknikoaren lanaren informazio eguneratua emateko.

Deustuko Unibertsitateak antolatutako *Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra esku hartzeko masterrean* lagundu du, eskolak eta ikasleentzako diru laguntzak emanda.

Hitzarmenarekin lotutako trebatze eta sentsibilizatzeko jarduerak antolatzeko, aholkularitza tekniko eman die erakunde publikoei eta pribatuei.

Hitzarmenarekin lotuta, beste erakunde batzuek antolatutako trebatze eta sentsibilizatzeko jardueretan parte hartu du. Ondorengoak nabarmendu behar dira:

- Genero indarkeria eta familia barruko indarkeriari buruzko batzarra, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak Donostian antolatutakoa.
- *Emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei eta sexu erasoei erantzuteko jokoarena plana*. Gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gidaliburua aurkezteko jardunaldia, Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostian antolatutakoa.
- «Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen emakumezko biktimei eskaini beharreko tokian tokiko protokoloak» ikastaroa, EUDELek Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (HAEE/IVAP) batera Bilbon antolatutakoa.

Erakundeen Arteko Hitzarmenaren harira egindako jardueren berri eman die Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioari eta Emakumearen Aurkako Indarkeriari Aurre Egiteko Gobernuaren Ordezkaritza Berezari. Horretarako, txostenak egin ditu eta koordinazio bileretan parte hartu du.

BERDINSAREA (Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eta berdintasunaren aldeko Euskal Herriko udalerrien sarea) sortzeko EUDELekin sinatutako lankidetzak hitzarmenarekin aurrera jarraitu du. Udalerrietan berdintasuna bultzatzeko eta emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko programak eta jarduerak ezartzea, esperientziak trukatzeko, koordinatzea eta elkarrekin jarduerak egitea du helburu sare horrek. Ilde horretatik, besteak beste, BERDINSAREAK azaroaren 25aren harira sustatutako sentsibilizazio kanpainan parte hartu du, baita tokian-tokian protokoloak sortzeko lantaldeetan ere.

Etxeko tratu txarrek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa ezartzen parte hartu du.

Erakundeek dirulaguntzei buruzko dekretuetan, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko eta deuseztatzeko jarduerari lehentasuna ematen dieten irizpideak sartu ditu, baita biktimei laguntza ematen dietenak ere.

Gizarte zerbitzuen arloan datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartu du eta koordinazio lana egin du bertan. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak datuak biltzeko fitxa bateratuaren edukiak Diagnostikorako eta Esku Hartze Sozialerako Tresna izeneko aplikazio informatikoan txerta ditzan lagundu du; aplikazio horrekin, Gizarte Lan arloko profesionalei diagnostiko sozialak eta esku hartze prozesuen eta Gizarteratze Hitzarmenaren jarraipena egitea erraztu nahi die.

Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia parte hartu eta lagundu du.

Emakumeen aurkako etxeko indarkeriari EAEko gizarte zerbitzuen arloan erakundeek eman beharreko erantzuna. 2006: Sarbiderako atea azterketa aurkeztu du Eusko Legebiltzarrean. Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 51.2 artikulua ezarritakoa betetzeko egin zuten azterketa.

4/2005 Legearen 51.2 artikulua ezarritakoa betez, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko Euskal Autonomia Erkidegoko baldintzen eta bitarteko judizialen zein polizialen eraginkortasuna eta irismena ebaluatu du.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailari Etxeko indarkeriaren emakumezko biktimei harrera egiteko bitartekoak arautzen dituen irailaren 11ko 148/2007 Dekretua eta EAEko Familia Topaguneak arautzen dituen Dekretua sortzen lagundu dio, ekarpen bidez.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuaren 2007ko azaroaren 27ko Agindua egiten lagundu dio Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailari. Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osoa Bermatzeko Neurriari buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikulua genero indarkeriaren emakumezko biktimei aurreikusitako laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen du aginduak.

EAEko lurralde historiko bakoitzerako Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak bultzatutako eta koordinatutako Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osoa Bermatzeko Neurriari buruzko Legearen eta Etxeko Indarkeriaren Biktimei Babesteko Aginduaren eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloa egokitzen eta jarraipena egiten lagundu du.

ARABAKO FORU ALDUNDIA

Etxeko tratu txarren eta sexu erasoen aurkako jarduerak hobetzeko gidak, protokoloak edo materiala sortuz eta zabalduz lagundu du.

Akordioaren harira, beste erakunde batzuek antolatutako trebatze eta sentsibilizatzeko jardueretan (ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak eta abar) parte hartu du.

Biktimentzako laguntzen eta indarkeriaren zikloaren inguruko sentsibilizazio, informazio eta hedapen kanpaina bat egin du, azaroaren 25aren haritik, bereziki Arabako landa eremuetako herritarrei zuzendua. Helburu nagusia herritarrei indarkeria garaiz antzematen irakastea eta laguntzaile bezala joka dezaten lortzea da.

Etxeko tratu txarrek eta sexu erasoek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa ezartzen parte hartu du.

Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen batzordearen eta Talde Teknikoaren koordinazio bileretan parte hartu du. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak, 2007an, Erakundeen Arteko II. Akordioaren eta tratu txarren biktimak laguntzeko programa arautzeko Dekretuaren zirriborroei –Emakundek egindakoak biak– ekarpenak eginez lan egin du, batez ere.

Gizarte zerbitzuen arloan datuak biltzeko sistema bateratuaren sorreran parte hartu du; sistema horrek ez dio eragiten datuak biltzeko aspalditik dituen berezko sistemari. Berezko sistema horrek gaur egungo zerbitzu eta laguntza guztiei buruzko datuak ditu.

Genero indarkeriaren biktimei arreta eskaintzeko zerbitzu espezializatuak ematen jarraitu du: biktima izandako emakumeentzako eta erasotzaile izandako gizonentzako arreta psikologikoa, emakumeentzako aholkularitza juridikoa, tratu txarren biktimei eragiten dieten prozesu juridikoen jarraipena, aldi baterako egonaldietarako bi abegi etxe izatea, eta abegi etxeetan edo haien etxebizitzetan bizi diren emakumezko biktimei Laguntzeko Programari eustea.

Gasteizko Udalarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena luzatu du, laguntza espezializatua ematen dituzten zerbitzuak garatzeko, baita genero indarkeria egoeretako esku hartzeetan laguntzeko, prebenitzeko eta koordinazio lana egiteko ere.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Arabako Abokatuen Elkargoaren arteko lankidetzak hitzarmena luzatu du, tratu txarren eta sexu erasoen biktimak diren emakumeentzako laguntza hobetzeko.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak eta Clara Campoamor Elkarteak emakumearen aurkako indarkeria prebenitzeko sinatutako elkarlanerako hitzarmena garatu eta luzatu du. Hitzarmenak genero indarkeria jasan duten emakumeei eta adingabeei arreta psikologikoa, juridikoa, hezkuntza arlokoa eta soziofamiliarra emateaz arduratzen diren profesionalentzako heziketa proiektu bat gauzatzea ahalbidetu du.

Etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren ildotik esku hartzeko protokoloarekin bat, egin beharreko koordinazio lana egin du Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen eremuan.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2007ko ekitaldiko laguntza deialdien bidez, genero indarkeriarekin lotutako alderdietan trebatzeko, sentsibilizatzeko eta prebenitzeko jarduerak finantzatu ditu.

Gizarte Zerbitzuetako eta elkarteetako profesionalak genero indarkeriarekin lotutako esku-hartze jarduera espezifikoetan prestatzeko ekimenak egin ditu. Helburua indarkeria zikloa garaiz antzematea eta indarkeria fisikoa zein autoindarkeria prebenitzea da.

Gasteizko Udalarekin indarrean dagoen elkarlanerako hitzarmenaz baliatuta, 2005ean berrargitaratutako *Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako gida* banatu eta eguneratu du.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eta Euskal Herriko Unibertsitateko Psikologia Sozial eta Portaera Zientzien Metodologia Sailaren arteko hitzarmena luzatu eta garatu du, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko programa pilotu bat diseinatzeko, ikuskatzeko eta ebaluatzeko. Programaren helburua, etorkizunari begira, Arabako lurralde historikoan sexua/generoa sistemaren hezitzaileak izango direnak trebatzea da.

Arabako Foru Aldundiaren eta San Prudentzio Lan Fundazioaren arteko hitzarmena luzatu eta garatu du, lan bila dabiltzan genero indarkeriaren emakumezko biktimentzako tutoretza proiektua gauzatzeko.

AMAPASErekin lankidetzaz hitzarmena sinatuta, prebentzio programa bat egin du emakumeen aurkako indarkeria amaitzeko helburuarekin. Horretarako, sentsibilizazio eta informazio kanpainak egingo dituzte, bereziki landa eremuetan. Era berean, heziketa jarduerak ere burutu ditu. Bikote arazoak eta gatazkak konpontzeko moduak aztertu dituzte jardueren horietan, eta ondorengo helburu inplizitua izan dute: emakumeek indarkeriaren zikloa ezagutzea eta, biktimak izanez gero, beren burua hala ikusteko gai izatea.

Udal edo udalerrietan protokoloak garatzeko arauak prestatu ditu, etxeko tratu txarrak edota sexu erasoak jasan dituzten emakumeei tokian tokiko arreta hobetzeko. Arabako landa eremuetako errealitatea ere kontuan izan du.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Etxeko tratu txarrak edota sexu erasoak jasan dituzten emakumeei eman beharreko arretaren eta Erakundeen Arteko Akordioaren inguruko heziketa eta sentsibilizazio jarduerak diseinatzeko eta garatzeko parte hartu du. Hain zuzen ere, ondorengo txostenak aurkeztu ditu:

- *Etxean emakumeen aurkako indarkeriaren biktima direnei eskaini beharreko laguntza arloko Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintza Sailaren bitartekoak; EUDELEK HAEEn laguntzaz antolatutako «Etxeko indarkeria edo sexu erasoak jasandako emakumezko biktimei eskaini beharreko arreta hobetzeko tokian tokiko protokoloak buruzko ikastaroak», hain zuzen. Talde horri eskaini beharreko arretarekin lotura duten administrazio publikoetako profesionalak begira antolatu zuten ikastaroa.*
- *Gizarte zerbitzuak landa eremuetan, Landa Eremuetako Emakumeen Batzordeak eta Itsasmendikoi, SAK (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailaren Elkartea Publikoa), Landa Eremuetako Emakumearen Eguna ospatzeko eta emakumeen errealitatea erakusteko asmoz, Agurainen antolatutako jardunaldian.*

Bizkaiko Foru Aldundiaren 2007ko Lanposturako Prestakuntza Plana delakoan, bi prestakuntza ikastaro egin ditu gai honi buruz: «Lotura harremanak-Lotura ezintasunak» eta «Entzute terapeutikoa», Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren Emakume eta Familia Zerbitzuko eta gainerako zerbitzuetako teknikariei zuzendutakoak.

Genero Indarkeriaren Bizkaiko Behatokia, Osoko Bilkurak eta Genero Indarkeriaren Adierazleei Buruzko Lantaldeak egindako lanarekin aurrera jarraitu du. Lantalde honetan erakunde hau osatzen duten erakundeetako batzuen ordezkariak daude, eta 2007an lau

bilera egin ditu, ondorengo helburuekin: datu zehatzak eta fidagarriak zer informazio iturrik izan ditzakeen antzematea eta haietarako sarbidea erraztea; gaur egun eskuragarri dauden datuak zein diren jakitea eta haiek biltzea; eta fenomenoak ezagutzea ahalbidetzen duten adierazleak diseinatzea.

*Bizkaiko Baliabideen Atlas*a argitaratu, garatu eta eguneratu du Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak webgunerako. Baliabideen Mapan jasotako informazio guztia garatuta eta grafikoki irudikatuta dago Atlasean. Herri, eskualde edo azpieskualde bakoitzeko zerbitzuak deskribatzen eta izendatzen ditu Baliabideen Atlasak, genero-indarkeria jasandako Bizkaiko emakumeen beharrei emandako erantzun instituzionalaren hedapena eta izaera irudikatzeko asmoz. Aurten Atlasa eguneratzeko lan egin du eta, informazioa hobeto aztertzeko, beste mapa bat ere egin du: «Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasun Planak eta Programak, Bizkaiko Udalerrietan eta Mankomunitateetan, espezializatutako teknikariak dauden ala ez kontuan hartuta».

Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei eskaini beharreko gizarte baliabideen inguruko informazioa biltzeko datuak jasotzeko sistema automatizatu diseinatu du; gizarte baliabide horiek udalenak, mankomunitateenak edo foru aldundienak izan daitezke, betiere 2006koak. Informazioa biltzeko fitxa informatizatu bat ezartzen hasia da (banakoentzako formulario digitalizatu bat, gizarte arloan datuak biltzeko prozesuaren tresna nagusia); erakunde informazio emaileetatik etengabeko informazioa jasotzeko aukera emango du fitxa horrek.

EUDELekin batera, eutsi egin dio Harremanetarako Udal Sareari, eta indartu egin du. Sare horrek udalerrietan oinarritako harremanak identifikatzea, indartzea eta mantentzea du helburu, Bizkaiko 112 udalerriak inplikaturako dituen etengabeko informazio sistema bat eratzeko. Sare horrek lortutako informazioaz Behatokiaren webgunea elikatzen da.

Behatokiaren webgunea mantentzen eta etengabe eguneratzen jarraitu du; besteak beste, Baliabide Mapa eta Dokumentuen Kudeatzailea zein Dokumentuak eta Adierazleak izeneko atalak etengabe eguneratu ditu, informazioa eta dokumentazioa sartuta. Webgunea hedabide eta trukerako gune izateko sortu zen.

Emakumeentzako dirulaguntzen deialdia arautzen duen Foru Dekretuan, abegi eta aholkularitza juridiko jarduerekin lotutako balorazio irizpideei eman die lehentasuna. Guztira, tokian tokiko 18 erakundek jaso dute dirulaguntza.

Ettxeko indarkeriaren emakumezko biktimei eta haien seme-alabei zuzendutako larrialdietako abegi zerbitzua indartu du. Izan ere, % 46 handitu du giza baliabide eta

baliabide materialetara bideratutako dirua. Helburua berehalako harrera eta 24 orduko arreta pertsonal espezializatua bermatzea da. Horretarako, konpainia zerbitzuak eta larrialdietako harrerari dagozkion behar adinako segurtasun neurri egokiak ezarri ditu.

Emakumeen aurkako etxeko indarkerian espezializatutako esku hartze programa familiarra indartu du. Programak laguntza psikosoziala eskaintzen die indarkeria jasan arren etxean erasotzailearekin jarraitzea edota bertara itzultzea erabakitzen duten emakumeei, baita horrelako familietan bizi diren adingabeei ere. Horretarako, erabakiak hartzeko gaitasuna sustatzeko eta egoerei aurre egiteko bitartekoak eman zaizkie programan parte hartzen dutenei. Bi arrazoiengatik indartu da programa. Alde batetik, gero eta eskaera handiagoa dagoelako. Eta, bestetik, erasotzailearekin bizi gabe elkarbizitza hori berreskuratzeko eta, beraz, lehengo tratu txar egoerara itzultzeko arrisku handia duten tratu txarren emakumezko biktimak ere esku hartze kasutzat hartu direlako. Era berean, programa hori arautu egin da, 2007ko abenduaren 10eko 232/2007 Foru Dekretuaren bidez (249. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2007ko abenduaren 24koan).

Familia Topagune Zerbitzua indartu du; haren egoitza 70 metro karratu zabaldu du –gaur egun, 250 metro karratu erabilgarri ditu–, hiru bisita gela gehiago jarri ditu, eta programan lan egiten duten profesionalen taldea ere handitu du. Zerbitzu hori lehiaketa publiko bitartez esleitura dago. 2007an 15.577 esku hartze egin eta 421 adingabe artatu dituzte (205 neska eta 216 mutil); 113 emakumeren 145 seme-alabak babesteko agindua dute eta, beraz, kasu horietan, erasotzailea urrun egoteko agindu da.

Arreta berezia behar dutenentzako Familia Topagune Programa berria diseinatu eta abian jarri du. Programa hori, bereziki, Haur Zerbitzuan artatutako eta egoitzaren edo familiaren batean, modu sinplean edo iraunkorrean, hartutako umeei edo nerabeei edo adoptatu aurretik familiaren batek hartutakoei zuzendua da, baita tratu txarren biktima baten ardurapean dauden seme-alabei zuzendua ere. Programak kasu bakoitzaren beharretara egokitutako ikuskatze eta esku hartze espezializatua eskainiko du. Horretarako, Psikologian lizentziatutakoen lantalde profesionala izango du. Programa gauzatu ahal izateko, kontratazio prozedura bat jarriko da abian.

Etxeko tratu txarrek eta sexu erasoek eragindako heriotzei erakundeek eman beharreko erantzunei buruzko protokoloa ezartzen parte hartu du.

Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen batzordearen eta Talde Teknikoaren koordinazio bileretan parte hartu du. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak, 2007an, Erakundeen Arteko II. Akordioaren eta tratu txarren biktimak laguntzeko programa

arautzeko Dekretuaren zirriborroei –Emakundek egindakoak biak– ekarpenak eginez lan egin du, batez ere.

«Emakumeen aurkako etxeko tratu txarren kontra EAEko erakundeek gizarte zerbitzuen arloan emandako erantzuna 2006: Sarbiderako Atea» azterketa egiten lagundu dio Emakunderi.

Etxeko indarkeriaren emakumezko biktimak artatzeko bitartekoak arautzen dituen irailaren 11ko 148/2007 Dekretua eta EAEko Familia Topaguneak arautzen dituen Dekretua sortzen lagundu dio Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailari, ekarpen bidez.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari Genero Indarkeriaren Kontrako Babes Osoa Bermatzeko Neurriei Buruzko Legearen eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren Eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloa egokitzen eta jarraipena egiten lagundu dio.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuaren 2007ko azaroaren 27ko Agindua egiten lagundu dio Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailari; Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osoari buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren 27. artikulua genero indarkeriaren emakumezko biktimentzat aurreikusitako laguntza ekonomikoa emateko eta ordaintzeko prozedura ezartzen du aginduak.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Gizarteratze Zerbitzuari dagokionez, eutsi egin die Oinarrizko Errenta, Gizarteratzeko Errenta Aktiboa, Gizarte Larrialdiko Laguntza edo araututako beste dirulaguntza ekonomiko batzuk jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten tratu txarren edota sexu erasoen biktimentzako prestazio ekonomikoak.

Genero indarkeriaren arloko gaiez udaletako gizarte zerbitzuak informatu eta aholkatu ditu, eta haiekin aritu da lanean.

Emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei eta sexu erasoei erantzuteko jokaera plana. Gizarte zerbitzuetako profesionalentzako gidaliburua aurkezteko jardunaldia antolatu du Donostian, Emakunderekin batera.

Giza Eskubideen Saileko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren sentsibilizazio kanpainaren harira, jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldi horietako agiriak eta materialak eskuragarri dituzte interesa duten guztiek, www.egokilan.net webgunearen Dokumentuak atalean

Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen batzordearen eta Talde Teknikoaren koordinazio bileretan parte hartu du. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak, 2007an, Erakundeen Arteko II. Akordioaren eta tratu txarren biktimak laguntzeko programa arautzeko Dekretuaren zirriborroei –Emakundek egindakoak, biak– ekarpenak eginez lan egin du, batez ere.

EUDELek emakumeen aurkako indarkeriaren arloan antolatutako bileretan parte hartu du.

Bildutako informazioa sistematizatzeko aukera ematen duen datuak biltzeko fitxa sistema bateratuaren sorrera prozesuan parte hartzen jarraitu du.

Tratu txarrek edo sexu erasoek eragindako heriotza kasuetan erakundeen erantzun protokoloa aplikatu du.

Erakundeen Arteko Hitzarmena ezartzeko jardueri buruzko balorazioa egin du.

Emakumearen aurkako indarkeriaren biktimei eta epai judiziala jaso duten erasotzaileei arreta psikologikoa emateko programaren kanpoko ebaluazioa egin du.

EAEko arreta psikologiko programen ereduak ebaluatu ditu, Agintzari erakundearekin batera.

Giza Eskubideen Saileko Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren webgunea eguneratuta izan du.

EUDEL, EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA²

EUDELen webgunearen bidez, Erakundeen Arteko Akordioa ezagutarazi du, baita EUDELek ordezkaritza duen gainontzeko partaidetza organoetan garatutako eta landutako protokoloak eta jarduerak ere.

² Hona hemen EUDELek egindako jarduerak. EAEko udal bakoitzak bere aldetik gai honetan beste jarduera batzuk egin ahal izan ditu, baina haiek ez dira hemen kontuan hartu.

Gaiarekin lotutako lege xedapenen ondorioz adosturiko jarduerak abian jarritz parte hartze zuzena duten udal langileak trebatzeko guneak proposatzen jarraitu du.

EUDELen eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen arteko hitzarmenaren harira, indarkeriaren biktima diren emakumeei laguntzen dieten udal langileentzako trebakuntza eskaintza osatu du; alde horretatik, etxeko indarkeriaren eta sexu erasoaren biktima diren emakumeei laguntzeko tokian tokiko protokoloak egiteko beste ikastaro bat antolatu du Bilbon.

Etxeko tratu txarrak edota sexu erasoak jasan dituzten emakumeei arreta emateko tokian tokiko protokoloak abian jartzeko jarraibide gida hedatzen jarraitu du.

Udaletako teknikarien topaguneak antolatu ditu, emakumeen aurkako indarkeria saihesteko, hura hautemateko eta esku hartzeko baliabideei zein zerbitzuei buruzko esperientziak eta gogoetak partekatzeko.

Udalerrietako informazioa biltzen bukatu du, Arabako eta Gipuzkoako mapa bat egiteko, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borroka eta berdintasun arloetako udal bitartekoei buruz. Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren bidez Bizkaiaz lortutakoa osatzera dator informazio hau.

EUDELen webgunean Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako udal baliabideak ezagutarazi ditu.

Gaiari buruz aurkeztutako lege ekimenak eta gainerako testu arautzaileak hobetzeko oharrak zein ekarpenak aztertu eta formulatu ditu.

EUDELen webgunearen bidez, Babesteko Agindua ezartzeko protokoloa hedatu du gizarte zerbitzuen arloan.

Datuak biltzeko sistema bateratuaren tokian tokiko ezarpenaren sustapenean parte hartu du, kasuen aurrean erakundeak hobeto koordinatuta aritzeko eta Autonomia Erkidegoko errealtatea hobeto ezagutzeko.

Etxeko indarkeriagatiko eta sexu erasoengatiko heriotza kasuetan ezarri beharreko protokoloaren berri eman du EUDELen webgunean.

Etxeko indarkeriagatiko eta sexu erasoengatiko heriotza kasuetan protokoloa ezartzen lagundu du.

Harrera egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko baliabideen koordinazio protokoloa egiten parte hartu du.

Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako EAEko udalerrien sarea (BERDINSAREA) sendotu du. 2007an, beste bost udalen sarrera kudeatu du: Lekeitio, Barrika, Gorniz, Berango eta Galdakao. Horrez gain, BERDINSAREako kide diren udalerrien betebeharrak eguneratu ditu.

Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen eta Talde Teknikoaren koordinazio bileretan parte hartu du. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak, 2007an, Erakundeen Arteko II. Akordioaren eta tratu txarren biktimak laguntzeko programa arautzeko Dekretuaren zirriborroei –Emakundek egindakoak, biak– ekarpenak eginez lan egin du, batez ere.

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira (azaroaren 25), 2007ko Kanpainako produktuak diseinatu eta EAEko udalen esku utzi ditu. Aurten, 13 eta 18 urte arteko mutil eta neska gazteei begira egin da kanpaina. Nerabeak sentsibilizatzea izan da helburu nagusietako bat, indarkeria sor dezaketen portaerak eta haien arteko harremanetan jarrera sexistak ezkutatzeko dituzten jokaerak antzemateko gai izan daitezkeen. Berdinsareako kide diren udalerriek ez ezik, beste hamar batek ere bat egin dute kanpainarekin.

Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunaren harira (azaroaren 25), adierazpen eredu bat idatzi eta udalen esku utzi du.

Europako «Stop Domestic Violence Against Women» kanpaina parte hartu du.

LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUA

Hiru kondaira-lurraldeetan eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren laguntzarekin, etxeko indarkeriaren eta sexu-erasoen inguruko 5 prestakuntza-ikastaro antolatu ditu abokatuentzat; ikastaro horiek nahitaez egin beharrekoak dira, bai berariazko ofizioko txandan izena emateko, bai eta txanda horretan jarraitzeko ere. Guztira 413 emakume eta 224 gizon hartu dute parte.

Akordioaren Jarraipen Batzordearen koordinazio-bileretan parte hartu du, baita Erakundeen Arteko Talde Teknikoaren eta Gizarte Zerbitzuetako Azpibatzeren bileretan ere.

Beste erakunde batzuek Akordioaren inguruan antolatutako hezkuntza eta sentsibilizazio-jardueretan parte hartu du.

Etxeko indarkeriagatiko eta sexu-erasoengatiko heriotza kasuetan protokoloa aplikatzen lagundu du.

EAEko lurralde historiko bakoitzerako Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak bultzatutako eta koordinatutako Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osoa Bermatzeko Neurriei buruzko Legearen eta Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Aginduaren eraginkortasunerako Koordinazio Protokoloa egokitzen eta jarraipena egiten lagundu du.

EUSKAL KONTSEILU MEDIKOA

Emakumearen aurkako indarkeriari buruz Osakidetza Oinarrizko Arreta Zerbitzuko profesionalentzat antolatutako ikastaroan parte hartu du.

Administrazio Publikoaren Eskolan, erreferentzia moduan parte hartu du, antzemandako kasuei buruzko datuak biltzen, informazioa trukatzeko, osasun arloko profesionalen jarrera aldarazteko, gaixoen artean horrelako kasuak antzemateko, sentsibiltate handiagoa izateko ahalegina egiten aholkua emateko, eta abar.

Etxeko indarkeriagatiko eta sexu erasoengatiko heriotza kasuetan protokoloa ezartzen lagundu du.

Erakundeen Arteko Akordioaren Jarraipen batzordearen eta Talde Teknikoaren koordinazio bileretan parte hartu du. Erakundeen Arteko Talde Teknikoak, 2007an, Erakundeen Arteko II. Akordioaren eta tratu txarren biktimak laguntzeko programa arautzeko Dekretuaren zirriborroei –Emakundek egindakoak, biak– ekarpenak eginez lan egin du, batez ere.

B) JARDUERA PROTOKOLOA BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA

EUSKO JAURLARITZAKO HERRIZAINGO SAILA

«Helburuak betetzeari dagokionez, balorazioa ona da.

- A. **Erakundeen** ikuspuntutik, Herrizaingo Sailak hainbat ekimenetan parte hartu du: emakumeen aurkako indarkeria arazoez Eusko Jaurlaritzak antolatutako zenbait sentsibilizazio ekintzetan, tratu txarrek eta sexu erasoek eragindako heriotza kasuetan instituzioek eman beharreko erantzunari buruzko Protokoloan, eta Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren bileretan eta osoko bilkuretan.
- B. **Prestakuntzari** dagokionez, Herrizaingo Sailak ikastaroak, jardunaldiak, hitzaldiak eta abar antolatu ditu. Ertzaintzaren Akademiak etxeko indarkeriari eta sexu erasoei buruzko prestakuntza eskaintzen jarraitu du:
- Polizia ikasketetako maila guztietan ikastaroak eskaini ditu eta, horietan, alderdi soziologikoak, psikologikoak eta penalak jorratu ditu besteak beste, baita kasu horiek aztertze modua ere. Guztira, 535 ikaslek jaso dute prestakuntza hori (62 emakume eta 473 gizon).
 - Genero indarkeriaren arloan eguneratzeko eta hobetzeko ikastaroa eskaini die 412 ikasleri (39 emakume eta 373 gizon) 2007an.
 - Etxeko indarkeriaren eta genero indarkeriaren prozesuan bezeroaren asetasuna bermatzeko bitartekaritzaren eguneratze eta hobetze ikastaroa eskaini die hamabi emakumeri eta bost gizoni.
- C. **Estatistika polizialari** dagokionez, oraindik ere helburu nagusietako bat etxeko indarkeriaren eta sexu askatasunaren kontrako delituen fenomenoaren ezagutzea da. Beraz, etxeko indarkeria eta sexu askatasuna» izenpean bildutako delitu tipologia hobetzeko lan egin du, baita hura Genero Indarkeriaren Aurkako Babes Osoa Bermatzeko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren harira ezarritakora egokitze ere. Ildo horretatik, kasu motak zabaltzeko egin dira eta orain, indarkeria psikikoa, psikologikoa edo sexuala ez ezik, bikotekideak edo bikotekide ohiak zuzenean edo zeharka eragindako indarkeria ekonomikoa ere badago haien artean. Era berean, Ertzaintzaren datu-baseak aldatu egin dira, 2008tik aurrera banaketa geografikoaren arabera datu zehatzak bilduko dituen fenomeno kriminalaren irudikapen bat egiteko; hartara, kasu eta prebentzio mapa zehatzagoak egin ahal izango dira.

D. **Babesari** dagokionez, Kalitatea Kudeatzeko Sistemaren harira, etxeko indarkeriak eta genero indarkeriak eragindako Ertzaintzaren eginbideetan biktimaren arrisku egoerari buruzko balorazioa egiten du, beste eraso batzuk prebenitzeko eta, beharrezkoak diren neurri polizialak hartuta, biktima behar bezala babesteko. Ertzaintzaren bulegoetan tratu txar kasuren baten berri badute, bestalde, autobabeserako neurriei buruzko informazioa jasotzeko aukera eskaintzen diote tratu txarren emakumezko biktimari; liburuxka bat eta ikus-entzunezko materiala erabiltzen dituzte horretarako. Era berean, ustezko erasotzaile bezala tratu txar salaketa batean nahastuta dabilen gizonari informazioa ematen diote jokaera horrekin jarraitzeak ekar diezazkiokeen ondorio penalez eta portaera aldatzeko eskura dituen zerbitzu sozialez.

- Etxeko indarkeriaren biktima guztiei telefonia zerbitzua eskaintzen jarraitu du 2007an; horren harian, guztira 186 telefono utzi ditu biktimen esku. Horrez gain, sexu erasoen kasuetako eginbideei buruzko Segurtasun sailburuordearen 3. Agindua aldatu egin da: sexu erasoetan, biktimak jasandako erasoaz aztertuta, beste eraso bat egon daitekeela pentsatzeko zantzuak izanez gero, eta babesteko helburuarekin proportzionala bada neurria, Ertzaintzaren unitateekin zuzenean harremanetan jartzeko telefono bat eskainiko zaio biktimari, larrialdi kasuetan erabil dezan.
- Aldi berean, iaz, eta dagokion protokoloaren ildotik, Herrizaingo Sailak etengabeko babesa eman zion biktimari 21 kasutan (14 Bizkaian, 8 Gipuzkoan eta 1 Araban), polizia bizkartzainekin edo segurtasun pribatu enpresa bat kontratatuta. Bestalde, 21 erasotzailerik jarraipena egin zaie, eta 2007an guztira 7.931 emakumek izan dute babesa.
- Ertzaintzako Herritarren Segurtasunerako Dibisioko ertzainek 2006an 2005ean baino % 72 ordu gehiago eskaini zizkieten familia arloan kasuak prebenitzeari –batez ere, emakumeen aurkako indarkeria saihesteari–. 2007ari dagokionez, 2006ko 65.712 orduetatik 2007ko 80.783 orduetara pasatu da; % 23ko hazkundea izan da, beraz.»

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIEN SAILA

«Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak ez du zuzenean zerbitzurik eskaintzen eta, horregatik, ez du jarduera protokolorik. Hala ere, tratu txarren emakumezko biktimentzako telefono zerbitzuak, sail honi atxikitakoak, baditu eginbide protokoloak, bai barruan, bai kasuak bideratzeko udalekiko harremanetan, eta bietan era sistematikoan gauzatzen ditu. Udal gehiagorekin kasuak bideratzeko protokoloak hitzartzea aztertzen ari da.»

EUSKO JAURLARITZAKO JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

«Erakundeen Arteko Hitzarmenean etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntzeko 2007. urterako aurreikusitako ia jarduera guztiak egin ditu Justizia Sailburuordetzak.

Nabarmentzekoa da genero indarkeria eta familia barruko indarkeriari buruzko lehenengo batzarra izan zela Donostian, martxoaren 8an eta 9an. Bertan parte hartu zuten pertsona eta erakunde guztien balio handiko ekarpenek topaketa eta gogoeta gune bihurtu zuten batzarra.

Beste erakunde batzuekin batera eginiko ekintzetan, argi ikusi da erakunde horiek konpromisoak betetzeko duten interesa eta borondatea, aurreko urteetan bezala. Nabarmentzekoa da genero indarkeriaren arazoari eraginkortasun handiagoz aurre egiteko indarrak batzen dituzten gizarte eragileen eta eragile judizialen arteko koordinazioa.

Hortaz, ontzat jotzen dugu Jarduera Protokoloaren betetze maila. Gure Erkidegoan sendotu egin da etxeko eta genero indarkeria desagerrarazteko konpromisoa.»

EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA

«Segur aski, honakoa izango da 2006an hartutako erabakirik garrantzitsuenetako bat: osasun protokoloa betetzeko jarduera sistematikoak ospitaleetako larrialdietan eta osasun etxeetan sartu izana, kontratu-programa bidezko zerbitzu-zorroan.

LEHEN MAILAKO ARRETA

Helburua Etengabeko Arretaguneetan eta Medikuntza Orokor eta Pediatria Kontsultetan tratu txarren kontrako osasun protokoloa sistematikoki eta behar bezala betetzea zen.

2007ko ebaluazioa: Egiaztatuta dago protokoloa behar bezala hedatuta dagoela eta erabili ohi dela. Egoerari buruzko txostenak egiteari dagokionez, orain arte zazpi osasun eskualdeetako lauk aurkeztu dute txosten hori.

LARRIALDI ZERBITZUAK

Helburua larrialdi zerbitzuetan osasun protokoloa ezagutzen eta zuzen erabiltzen ote zuten jakitea zen. Era berean, larrialdi zerbitzuetako PCH aplikazio informatikoari buruzko txosten bat informatizatzea espero zuen Arreta Espezializatu Zuzendariordeak.

2007ko ebaluazioa: larrialdi zerbitzuak dituzten 11 erietxeek txosten bana aurkeztu dute, eta balorazio ona egin dute larrialdietan protokoloaren ezarpenaz eta erabileraz. Oraindik ez da bukatu PCH aplikazioaren aldaketa fasea, txostena haren bidez egin ahal izateko.

Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzarekin eta hainbat sailtako beste zuzendaritza batzuekin bilera ugari egin ditugu, etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen arloko osasun jarduerak eguneratzeko eta hobetzeko.

Zazpi orduko ikastaro bana egin dute zazpi osasun eskualdeetan. 120 emakumek eta 30 gizonek parte hartu dute; 150 lagunek, guztira. Arazo horri buruzko saio klinikoak ere izan dira zenbait osasungunetan. Azkenik, Saileko eta Osakidetzako zenbait ordezkariak Genero Indarkeria eta Familia Barruko Indarkeriari buruzko Batzarrean parte hartu dute.»

EMAKUNDE, EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

«Emakunde erakunde laguntzailea da, eta ez die etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei zuzeneko laguntzarik ematen; horregatik, ez du nahikoa elementurik biktimei zuzenean laguntza emanez lan egiten duten profesionalek (osasun langileak, poliziak, epaileak, abokatuak eta gizarte zerbitzuetako langileak) protokoloa zenbatean bete duten baloratzeko.

Dena den, Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 51.2 artikuluan zehaztutakoari jarraiki, emakumeen aurkako indarkeria gaitan Euskal Autonomia Erkidegoan zerbitzu polizialek eta judizialek dituzten baliabideen eta programen ebaluazioa egin du. Gaur egun, azterketaren ondorioei buruzko txostena prestatzen ari dira eta, amaitutakoan, argitaratu eta Eusko Legebiltzarrean aurkeztuko dute.»

ARABAKO FORU ALDUNDIA

«Erakundeen arloan, Administrazio honek eta protokoloa betearazteko Aldundiarekin batera lan egiten duten tokian tokiko erakundeek ahalegina egin dute haren bidetik behar bezala jarraitzeko, eta horretarako beharrezkoak diren koordinazioak eta eginbeharrak

ezartzeko. Baita Gizarte Zerbitzuen arloak ezarritako eginbeharrekin lotutako gai guztietan langileei etengabeko prestakuntza eskaintzeko ere. Hala ere, beharrezkoa iruditzen zaigu beste erakunde batzuen jarduerari buruz ondorengoa adieraztea:

- *Biktimei Laguntzeko Zerbitzuan ezarritako lan protokoloak hobetu eta bete egin behar dira. Gizarte Zerbitzuetako langileei ez zaizkie babes neurriak behar bezala jakinarazten (berandu iristen dira, eta batzuetan ez dira iristen).*
- *Etxean indarkeria jasan duten emakumeei eta adingabeei Gizarte Zerbitzuek eta Justiziak eskainitako arreta psikologiko zerbitzuak bikoizten ari dira, ziur asko.*
- *Emakumeek oso zaila dute babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzea. Horregatik, behar baino denbora luzeagoa pasatzen dute abegi etxeetan.»*

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

«Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiten dugun Emakume eta Familia Zerbitzuko profesionalok ondokoak hauteman ditugu Hitzarmena betetzean:

Gizarte zerbitzuak:

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joaten diren emakumeek arreta eta informazioa jasotzen dute. Baliabideen berri ematen zaie, eta emozionalki laguntzen. Zerbitzu espezializatu honetara bideratutako kasuetan, ez dira beti betetzen Hitzarmenean aurreikusitako txostenak (gizarte zerbitzuetako profesionalek informazioa biltzeko bete beharreko ereduak).

Foru guneetan bizi diren emakumeen kasuan, gizarte zerbitzuekiko elkarlan ona dago, laguntza ekonomikoak izapidetzeko eta jarduerak koordinatzeko. Eta, oro har, azkar erantzuten zaie arazoei.

Abegi baliabideei dagokienez, iaiztik hobekuntzak antzeman dira arlo honetan eskuduntza duten udaletan; adibidez, baliabide horiek erabili ahal izateko lehenago salaketa jarri behar dela dioen betebeharra malgu ezarri ohi dute, eta Bilboko Udaleko Emakume Sailean, erroldatuta egon beharra kendu dute betebeharretatik; emakumeak, edozer bidetatik, Bilbon sustraituta dagoela besterik ez du egiaztatu behar. Dena den, gai honetan eskuduntza duten udaletatik bakar batek ere ez du oraindik larrialdi kasua betetzen tratu txar egilea bikotekidea/bikotekide ohia edo senarra/senar ohia ez denean. Beraz, beste kasu batzuk etxeko indarkeriatik kanpora geratzen dira, eta Emakume eta Familia Zerbitzuak hartu behar izaten ditu bere gain.

Emakume eta Familia Zerbitzu Espezializatua

Haurrak haien ardurapean izan edo ez, tratu txarrak jasan dituzten emakumezko biktimenezko Larrialdietarako Abegi Zerbitzuari eutsi zaio. Zerbitzu honek 12 lagunentzako lekua du, eta minusbaliatuentzat egokituta dago. Gainera, langile espezializatuak izaten ditu etengabe, biktimei eta beren seme-alabei lehen mailako arreta bermatzeko. Akonpainamendu zerbitzua eta arazo honi egokitutako segurtasun neurriak ere baditu. Beharrezkoa den kasuetarako, gainerako abegi baliabideetara jotzeko zubi gisa balio du. 2007an 116 sarrera izan dira (108 emakumerenak). Horrek esan nahi du, iazkoarekin alderatuta, egonkorra dela kopurua (2006an baino 8 kasu gehiago). Emakume horietatik 58 etorkinak ziren; beraz, abegi zerbitzuan hartutako emakume guztien % 53,7. 2007an emakume talde hori % 10 hazi izana oso datu adierazgarria da. Artatutako emakumeen profilari dagokionez, nabarmentzekoa da emakumeen % 14,8k beste arazo batzuk ere badituela; hala nola, nahaste psikikoak edota substantzia toxikoen kontsumoa. Gaur egungo baliabideek ezin diete arazo horiei erantzun egokirik eman. Arazo horiek artatzeko, emakumeak gunere berezietara eramaten ditugunean, gunere gutxi daudela, gainezka egoten direla, eta haietara sartzeko itxaron zerrenda luzeak izaten direla nabaritu ohi dugu. Bilbotik aurreko urtean baino % 9,6 emakume gehiago iritsi zirela ere nabarmentzekoa da. Ondorioz, 2007an Bilboko Udalaren abegi etxeetan lekurik ez zegoenez, zenbait emakumek behar baino denbora luzeagoa pasatu zuten Larrialdietarako Abegi Zerbitzuan. Salaketa aurkeztu eta babes neurriak eskatzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Larrialdietarako Zerbitzura jotzen duten emakumeen % 88k aurkeztua duela ordurako salaketa.

Larrialdietarako Egoitzen Foru Zerbitzua kudeatzeaz gain, epe ertainerako edo luzerako egonaldi gunerako Gizarte Zerbitzuek eginiko eskaera guztiak balioesten ditu Foru Aldundiko Emakume eta Familia Zerbitzuak. Emakumea onartu ondoren, bere egoeraren, arazoen eta baliabideen arabera plana egiten du.

Epe ertainerako edo luzerako egonaldietarako, emakumeei eta adingabeei zerbitzu osoa ematen dien abegi-baliabide bat du, talde horietan espezializatua. Horiei guztiei propio zuzendutako programa bereziak kudeatzen dituzte profesional horiek. Guztira, 26 lagunentzako lekua du; hau da, 10 emakumerentzat eta 16 seme-alabarentzat, adibidez. 2007an, 18 emakume eta 18 adingabe izan dira etxean. 18 emakume horietatik 11 etorkinak ziren; beraz, sartutako guztien % 61. Datu hori Bizkaiko etorkin populazioarenarekin alderatuz gero, nabari da emakume horiek ez dutela baliabide nahikorik, etorkinak dira eta. Nabarmentzekoa da 2007. urtean minusbaliotasun handia zuten bi emakume izan zirela tratu txarrak jasandako emakumeentzako epe ertainerako

edo luzerako egonaldietarako etxean, eta haien beharrei erantzun espezializatua eman zitzaiela.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailak, Babestutako Etxebizitzen arloan, genero indarkeriaren emakumezko biktimentzat duen Jarduera Planari dagokionez, oso balorazio ona egin da, emakumeek beren egoera pertsonala eta soziala «normalizatzeko» prozesuan izaten duten arazo larrienetako bati irtenbidea aurkitzen lagundu baitu: etxebizitzaren arazoari, alegia. Arazo horren ondorioz, luzatu egiten da egoitzetako egonaldia, eta horrek zaildu egiten du osatze prozesua. 2007an, bi emakumek eta beren seme-alabek erabili dituzte alokairuan eskainitako etxebizitzak, zuzenean esleituak; izan ere, foru egoitza batean egon ostean, ez zuten etxebizitzaren arazoa aurreikusitako epean konpondu. Oso ontzat hartu da, kasu horietako batean, esleipenean, lehentasuna egokitutako etxebizitzaren beharrari eman eta azkar erantzun izana. Hala ere, nabarmendu behar da 2007ko abuztuaz geroztik txostenak beranduago bideratzen ari direla, eta pertsona batek sei hilabetea itxaron behar izan zuela bere eskaerari erantzun ziezaioten; denbora hori luzeegia da.

Babesteko Aginduen Legea eta dagozkion Koordinazio Protokoloak indarrean sartu zirenetik, etengabe egon da harremanetan Koordinazio Gunearekin / Biktimak Laguntzeko Zerbitzuarekin. Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzetan zeuden eta babesteko agindua zuten emakumeei buruzko Laguntza eta Gizarte Babes Neurriei Buruzko Txostena bidali du. Halaber, emakumea egoitzatik irten edo beste abegi etxe batera joaten denean, beste txosten bat bidaltzen du horren berri emateko. Gizarte zerbitzuen arloan indarrean dagoen Etxeko Indarkeriaren Biktimak Babesteko Agindua Eraginkorra Izan Dadin Koordinazio Protokoloari jarraiki, etxeko tratu txarren eta sexu erasoen biktimei laguntza hobea emateko Erakundeen Arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak 2005eko azaroaren 25ean onartutako txostena ere bidaltzen du, datuak biltzen dituen. Hala ere, informazioa alde bakar batek bidaltzen du. Emakume eta Familia Zerbitzuak egindako galdera zehatzei erantzuteko bidaltzen du informazioa BLZk. Beharrezkoa izango litzateke Emakume eta Familia Zerbitzua erabili duten emakumeekin egindako jarduera guztiei buruz informazioa ematea.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren Emakume eta Familia Zerbitzuak tratu txarren eta sexu erasoen biktimei zuzendutako programa espezializatuak jarri ditu abian.

Alde batetik, tratu txarren eta sexu erasoen kasuetan, eta harremanak amaitutakoan izaten diren arazo psikologikoetan laguntzeko familian esku hartzeko programa. Bertan, 800 pertsonak jaso dute laguntza 2007an –haietatik 445 kasu berriak ziren–. Astean 309 orduko arreta eskaintzen jarraitu du zerbitzuak. Zuzenen eta berehala jo daiteke bertara,

ez dago inongo betebeharririk, eta 2007an egonkortu egin da laguntza psikologikoaren eskaera. Gaur egun, ez dago tratamendua jasotzen hasteko itxaron zerrendarik. 2007an, tratamendua are eraginkorragoa izan dadin, talde terapia ere egiten hasi da bikotekideak/bikotekide ohiak eragindako tratu txarren biktimekin, banakoentzako terapiaren osagarri. Bost talde terapeutiko jarri dira abian, eta haietan 36 biktimak parte hartu dute; batez beste, zazpina parte hartzaile izan dituzte taldeek. Horrez gain, Gizarte Ekintza Sailaren Laguntza Psikologikoa Eskaintzeko Familian Esku Hartzeko Programa tratu txar eta sexu eraso kasuetan arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 10eko 233/2007 Foru Dekretua egin da 2007an.

Emakumeei zein Gizonei zuzendutako Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzua da eskainitako zerbitzuetako beste bat. Familia Zuzenbide arloko aholkuak ematen ditu, baita tratu txar edota sexu eraso kasuetan ere, familia gatazkak prebenitzeko eta arintzeko ezkontideen edo bikoteen hausturetan. 2007an, 482 kasu artatu dituzte guztira; haietatik, 431 kasu berriak ziren, 57 tratu txar kasuak eta 15 sexu erasoak.

Nabarmendu behar da, era berean, Familia Topagune Programa 421 umek erabili dutela 2007an. Gero eta kasu gehiago artatzen dira programa honetan; 2006an baino 81 kasu gehiago. Bestalde, 2007an, hiru bisita gela berriak erabiltzen hasi dira; orain arteko bost gelei gaineratu zaizkie hiru horiek. Euren ardurapean seme-alabak dituzten eta erasotzailearengandik babesteko agindua duten tratu txarren emakumezko biktimak osorik babestea da Familia Topagunearen zeregin nagusietako bat. 2007an, egoera horretan zeuden 113 emakumeren 145 seme-alabari ireki zaie espedientea Topagunean. Nabarmenezko moduko datua da hau, talde bereziki ahula delako. Kasu horietan –laguntza jaso duten adingabe guztien % 34,4 dira–, programak finkatuta dituen zeregin orokorrez gain, gurasoak ez elkartzeko neurriak ere hartzen dira –itxaroteko denborak errespetatzeko betebeharra ezartzen zaie–, eta zaindu egiten dira adingabeek amaren erasotzailea den gizona ikusten dutenean izaten dituzten antsietate agerpenak.

2007an, Familia Topaguneko Arreta Berezi Zerbitzua izeneko programa berria diseinatu eta abian jarri da. Izan ere, Foru Aldundiko Haurtzaro Zerbitzuaren babes neurriren bat duten haurren eta nerabeen beharretara propio egokitutako esku-hartze baten beharra sumatu da. Horregatik, 2007an, Familia Topaguneko Arreta Berezi Programa diseinatu da, berau kudeatzeko lehiaketa publikoa antolatuta. Kontratua 2007ko azaroaren 26an sinatu zen, eta 2009ko azaroaren 25era arte egongo da indarrean. Zerbitzuaren estaldura hiru programaren bidez egin da, ikuskatze graduaren eta profesionalen lantaldearen esku hartzearen arabera bereiziak: ikuskatze baxuko bisita zerbitzua, ikuskatze egonkorra duen bisita zerbitzua, eta ikuskatu eta esku hartu beharra duen bisita zerbitzua. Aipatutako programa hori 2007ko azaroaren 26an sartu zen indarrean. Bertatik, beste kasu batzuk

ere jorratu ahal izango dira salbuespen moduan; beraz, behar hori izanez gero, tratatu txarren biktima baten ardurapean dauden seme-alabek propio haiei egokitutako esku-hartze bat jaso ahal izango dute, indarkeria eragin zuen bikotekideak epaileak araututa egiten dituen bisitetan.

2006ko maiatzean, etxean indarkeriaren biktima diren emakumeei eta beren kargu dauden seme-alabei zuzendutako familia laguntza psikosoziala emateko programa berezi bat jarri zen abian, erasotzailea bizi den etxean gelditzea edo hara itzultzea erabakitzen duten emakumeei eta hurrei laguntzeko. Hala, krisi egoerei aurre egiten zaie, eta egoera bakoitzari egokitutako irtenbideak aurkitzeko baliabideak ematen zaizkie pertsonari. Gero eta eskaera handiagoari erantzun ahal izateko, erasotzailearekin bizi gabe elkarbizitza hori berreskuratzeko eta, beraz, lehengo tratatu txar egoerara itzultzeko arrisku handia duten tratatu txarren emakumezko biktimak ere esku-hartze kasutzat hartzeko, kontratua luzatu egin zen 2007ko uztailaren 30ean. 2007an, 59 emakumek eta horien ardurapeko 39 adingabek jaso dute laguntza Programa horretan. Laguntza jasotako 59 emakumeetatik, denek parte hartu dute banakoentzako jardueretan, 27k taldekakoan. Batik bat, tratatu txar psikologikoak eta fisikoak jasan dituzte egunero edo astero, azken hamar urteetan. Programan ez dago itxaron zerrendarik; egun bat eta hiru egun artean pasatu beharra dago, batez beste, lehendabiziko elkarriketa egin baino lehen. Emakumeen Aurkako Etxeko Indarkerian Espezializatutako Familiar Esku Hartzeko Programa arautzen duen 2007ko abenduaren 10eko Bizkaiko Foru Aldundiaren 232/2007ko Foru Dekretua egin da 2007an.

Gizarte Ekintza Sailak Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia koordinatzen du; hau da, Bizkaiko genero indarkeriaren arloan ari diren zenbait erakunderekin eta elkarterekin lan egiten duen aholkularitza organo kolegiatua. Bizkaiko Lurralde Historikoan emakumeen aurkako indarkeria egoerak ikuskatzeko eta aztertzeko informazio-sistema eraikitzea du helburu. Bestalde, tratatu txarren inguruko politiken jarraipena ere egiten du, baliabideak benetako beharretara egokitzeko. Organo horren lana etxeko tratatu txarrak eta sexu erasoak jasandako emakumeei laguntza hobe emateko Erakundeen Arteko Hitzarmenaren harian egindako jarduerekin koordinatu eta osatuko da. Organo horrek 2007an egindako jardueren artean, ondorengoak nabarmendu behar dira: webgunea etengabe mantentzea eta eguneratzea; Udalekiko Harreman Sarea mantentzea eta indartzea; OVGB/BGIB Informazio Buletinaren 5., 6. eta 7. zenbakiak egitea, argitaratzea eta zabaltzea, eta 8. zenbakia prestatzea, 2008ko urtarrilean zabaltzeko; Baliabideen Atlas argitaratzea, 2007ko urtarrilean; informazioa biltzeko informatizatutako fitxa diseinatzea, probatzea eta ezartzea –informazioa biltzeko eta genero indarkeriarekin lotutako zenbait dokumentu egiteko tresna egonkor bihurtu da 2007an–.

Alor judiziala: Oso balorazio ona egin behar da emakumearen kontrako indarkeriaren aurkako epaitegi espezifikoen sorreraz, baita organo horietako profesionalen lanaz ere. Ildo horretatik, aurrerapausoak izan dira genero indarkeriaren emakumezko biktimei eskainitako arretan.

Alor honetan, nabarmendu behar da, oro har, biktimek ordu gehiegi pasatu behar dituztela epaitegi horietan, eta horrek areagotu egiten duela bigarren mailako biktimizazioa.

Abokatuen Elkargoa: Ofiziozko txanda espezializatuak jardura berezia egiten du biktimei laguntzeari dagokionez. Beren lanaren hedapenak nabarmen hobetu du biktimei emandako laguntza eta, beraz, ondo baloratu behar da ahalegina.

Laguntza handikoa da abokatuen kooperazioa; are gehiago baliabide ekonomikorik, sozialik eta, askotan, pertsonalik ez duten emakumeen kasuetan. Kasuari buruzko informazioa eman dute, eta Zerbitzuarekin lankidetzan aritu dira jarduerak koordinatzeko orduan.

Bestalde, poliziaren egoitzetan ez da beti aholkularitza presentzialik eman, eta telefono bidezko laguntzak eragotzi egiten du zerbitzua behar bezala ematea. Alde horretatik, esan behar da Erakundeen Arteko Hitzarmenak ezarritakoa bete egin behar dela eta, beraz, telefono bidezko aholkularitza legalaren erabilerak salbuespena izan behar duela.

Alor poliziala: Oro har, poliziaren jokaera egokia izan da: badaki larrialdietako egoitzetara joan-etorriak nola egin behar diren, biktima babestuta dagoen kasuetan koordinatuta aritzen dira lanean, eta polizia etxean zein indarkeria unitateen artean harreman ona dago; beraz, disfuntziorik izan denean egoera aztertu eta irtenbide egokia aurkitu dute.

Ertzaintzak lankidetzan estuan jardun du egoitzetan dauden emakumeei laguntzeko orduan. Ertzainek telefono mobilak eman dizkiete eta, egoki jo dutenean, jarraipenak egin dituzte, edo biktimak seguruago egoteko, lagundu egin diete. Gainera, elkarrizketak egin dizkiete emakumeei, eta informazio pertsonalizatua eman diete. Era berean, segurtasun neurriak hartu dira, baita emakumeek babesteko agindurik ez zeukatenean ere.

Alor honetan egindako balorazio orokorra oso ona den arren, esan behar da zain egon behar dela denbora luzean salaketa aurkezteko, eta hori kontuan hartzeko modukoa dela, biktimaren ahuldade egoerarengatik.»

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

«2007. urteko ekitaldian, ekintza jakin batzuk betetzeko zailtasunak sumatu dira:

- Sailean bertan lehentasunezkoztat hartu ez diren ekintzak.*
- Gauzatu gabeko ekintzak, Abegi Baliabideei buruzko Dekretua onartu gabe baitago oraindik: abegi etxeetarako inbertsio plana; berehalako abegi etxe bat abian jartzea.»*

EUDEL, EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

«Ontzat jo da protokoloan 2007. urterako aurreikusita zeuden jardueren EUDELen betetze maila.

BERDINSAREA indartu izanaz eta beste bost udalerri bertan sartu izanaz oso balorazio ona egin da. Horrez gain, sarean bertan, indarkeriari buruzko gaietan aholkularitza enpresa aditu bat kontratatu da, eta protokoloak egiten eta txertatzen laguntzen die udalei. Horretarako, bi lan batzorde sortu dira.

Batetik, protokoloak dituzten udalerrien talde bat sortu da. Zortzi udalerri daude bertan, eta protokolo horiek hobetu eta are gehiago zabaltzeko metodologiak lortu nahi zituzten, baita beste esperientzia batzuk ezagutu ere. Hain zuzen ere, batik bat beste zenbait esperientzia ezagutu nahi zituzten eta, beraz, esperientziak trukatu eta beste udal batzuek zer zailtasun izan dituzten eta haiei nola aurre egin dieten ezagutu izanak aberastu egin du haien lana.

Bestetik, protokolorik gabeko udalerrien beste talde bat sortu da; bi orduko bost saioen bidez, tokian tokiko protokoloen sorreraz informazioa eman zaie 21 udalerriri, eta parte-hartzaileak oso pozik geratu dira. Ikusitakoaren arabera, egin beharreko produktua bukatuta edo bukatzeaz dago zenbait kasutan, eta beste batzuetan, oso aurreratuta.

Beraz, oso positibotzat hartu dira BERDINSAREAKo kide diren udalerriek eta EUDELeK gai honen inguruan egindako jarduerak.

Hori guztia, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek beren aldetik egin ditzaketen jarduerak aintzat hartu gabe.»

LEGELARIEN EUSKAL KONTSEILUA

«Emakumeen aurkako indarkeriaren inguruan prestakuntza espezializatua ematen jarraitu beharra dago., 1/2004 Lege Organikoa indarrean sartzearen ondorioz, azken urteotan etxeko tratu txarren eremuan lan egin da gehien, eta beharrezkoa da sexu-erasoen eremuan egiten den prestakuntzan sakontzea.

Sexu-erasoei lotutako delituek zigor larriagoak izaten dituzte askotan. Horren ondorioz, penal bereziko txandan dauden legelariak bakarrik (txandan izateko 6 urtez kolegiatuta egon beharra dago) defenda ditzakete aipatu delituen biktimak.

Errealitate horri ezin daiteke albo batera utzi, bikotearen eremuan gertatzen den emakumeen aurkako indarkeriak afektatzen dion baino jende gutxiagori afektatzen badio ere, horrek ez du esan nahi garrantzi gutxiago duenik».

EUSKAL KONTSEILU MEDIKOA

«EMAKUNDEk zenbait ekintzetan parte hartzea eskatu dio, eta horietan guzietan parte hartu du.»